

Buletineko gaiak:

1. Ikasturte bukaerako Guraso Bilera Orokorrak
2. Biriatuko Ikastola: bertso saioa
 - Apartekoak

Temas del boletín:

1. Reuniones de fin de curso
2. Ikastola de Biriatu: tarde de bertsos
 - Otros temas

Berri orokorrak

1. Ikasturte bukaerako Guraso Bilera Orokorrak

Maiatzaren 16an hasiko gara 2021-22 ikasturte bukaerako bilera orokorrak egiten. Presentzialak izango dira, eta **deialdia Alexia bidez jasoko duzue**.

- **Oharra:** zaintza zerbitzua izango da HHko eta LH1go zikloko bilerak direnean. Zaintza zerbitzua behar duzuen edo ez aurretik jakin behar dugu. Horretarako, mesedez, bete hurrengo galdetegia: <https://forms.gle/aBSHZwDULTf7ewUg8>

- **Bileren egutegia:**

ASTELEHENA Lunes	ASTEARTEA Martes	ASTEAZKENA Miércoles	OSTEGUNA Jueves
Maiatzak 16 mayo LH6	Maiatzak 17 mayo LH3	Maiatzak 18 mayo LH4, LH5	Maiatzak 19 mayo LH1, LH2
Maiatzak 23 mayo HH5	Maiatzak 24 mayo HH4	Maiatzak 25 mayo HH3	Maiatzak 26 mayo
Ekainak 6 junio DBH4	Ekainak 7 junio DBH3	Ekainak 8 junio DBH1, DBH2	Ekainak 9 junio

Temas generales

1. Reunión de padres-madres de fin de curso

El 16 de mayo comenzaremos las reuniones generales de fin de curso 2021-22. Serán presenciales y **recibiréis la convocatoria a través de Alexia**.

- **Nota:** habrá servicio de vigilancia cuando se trate de reuniones de HH y primer ciclo de LH. Debemos saber con antelación si necesitáis o no un servicio de guardería. Para ello, por favor, rellenad el siguiente cuestionario <https://forms.gle/aBSHZwDULTf7ewUg8>

- **Calendario de reuniones:**



2. Bertsoak Biriaturako ikastola laguntzeko: martxoak 14

*Biriaturako ikastolan gaur egun **22 ikasle** ditugu. Ikastolak hainbat ekintza kultural antolatzen ditu, herrian euskara bultzatzeko eta, bide batez, ikastolak bere funtzionamendua bermatzeko behar duen dirua lortzeko.*

Zatoz gure herri zoragarria ezagutzerat, bertso ederretaz gozatuz eta ikastola lagunduz!

- **Data:** maiatzak 14, larunbata
- **Ordua:** 17:30
- **Bertsolariak:** Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Maialen Arzallus eta Maddi-Ane Txoperena.
- **Prezioa:** 10€ (haurrak doan)
- **Sarrerak:** Xaia ostatuan, bertsosaioabiriatu22@gmail.com helbidean edo (+33) 673 190 707 / (+33) 657 735 290 telefono zenbakietan.
- **Ondoren:** pintxopotea.

Apartekoak

1. Oiartzuna etorri diren bizilagun berriei harrera

2015etik Oiartzungo bizilagun berriei egin zaie HARRERA-SAIOA Oiartzunen. Buletina baliatu nahi dugu hurrengoan **PARTE HARTZERA GONBIDATZEKO**. Herritar berria etortzea bezain **GARRANTZITSUA DA, BERTAKO HERRITAR ETA ERAGILEEN PRESENTZIA**, harrera askoz naturalagoa baita esperientziak lehen pertsonan kontatuta, beste batek kontatuta baino.

2. Bertsos para ayudar a la ikastola de Biriatu

*En la ikastola de Biriatu hoy **tenemos 22 alumnos-as**. La ikastola organiza diversas actividades culturales para impulsar el euskera en el pueblo y, de paso, conseguir el dinero necesario para que la ikastola garantice su funcionamiento.*

¡Ven a conocer nuestro maravilloso pueblo, disfrutando de los hermosos bertsos y acompañando a la ikastola!

- **Día:** sábado 14 de mayo
- **Hora:** 17:30
- **Bertsolaris:** Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Maialen Arzallus y Maddi-Ane Txoperena.
- **Precio:** 10€ (niños-as gratis)
- **Entradas:** en el bar Xaia, bertsosaioabiriatu22@gmail.com o en los números de teléfono (+33) 673 190 707 / (+33) 657 735 290.
- **Después:** pintxopote.

Otros temas

1. Recibimiento a los y las nuevas vecinas de Oiartzun

*Desde 2015 hemos organizado para l@s nuev@s vecin@s de Oiartzun **SESIONES DE ACOGIDA**. Queremos aprovechar para **INVITAROS** a la siguiente. Es tan importante la participación de l@s recién llegad@s, **como la presencia de los vecin@s y agentes**, ya que la bienvenida es más natural si las experiencias son contadas en primera persona, que las contadas por otr@s.*



Oiartzungo Udaleko Euskara eta Gizarte Ongizateko Saila eta ABARAXKA ludoteka elkarlanean aritu dira **MAIATZAREN 13rako**, saio berri bat antolatzen. Asmoa da **otordutxo baten inguruan Oiartzuna etorri berri diren herritarrak eta bertan lehendik bizi garenak elkartzea**: urrutitik eta ez hain urrutitik etorritako auzokide berriak, betitik edo aspalditik Oiartzungo herritarrak direnak, haurrak, helduak, gurasoak... Saio honetan bertako eta urrutiko **JAKIAK eta KANTUAK** izango dira protagonista.

Otordutxoa antolatzeko interesgarria iruditu zaigu hainbat partaidek norberak prestatutako zerbait ekartzea: Euskal Herriko eta atzerriko platerak dastatzea da ideia. **ZUK ere ekarri dezakezu zure espezialitatea!** Beraz, hurrengo hitzordua hau da:

- **Eguna:** 2022eko maiatzaren 13a (ostirala).
- **Ordua:** 18:00
- **Lekua:** Abaraxka ludoteka, Kontzejupe plaza z/g

EGIN DIEZAIEGUN HERRIKO BIZILAGUN BERRIEI GURI EGITEA NAHIKO GENUKEEN HARRERA!

2. 'Mitoak eta Ziklizitatea' tailerra: maiatzak 13

Loregorri taldeak eta Haziak egitasmoak **Mitoak eta Ziklizitatea** tailerra antolatu dute hezitzaileentzat eta gurasoentzat bereziki. Bertan **hilerokoaren inguruko gaiez ariko dira**, kezkak argituz, mitoak hautsiz eta gaiaren inguruan hausnartuz. Animatu giro goxo eta atseginean ariko dira eta!

*Los departamentos de Euskara y Servicios Sociales del Ayuntamiento de Oiartzun y la ludoteca Abaraxka trabajan en conjunto para organizar una nueva sesión para el 13 de mayo. La intención es reunirnos entorno a un **piscolabis los recién llegados a Oiartzun con los que vivimos ya aquí**: nuev@s vecin@s de lejos y de no tan lejos, personas que viven en Oiartzun de siempre o desde hace mucho tiempo, niñ@s, adultos, madres, padres... En la próxima sesión, **PLATOS y CANCIONES de Euskal Herria** y de otros lugares serán protagonistas. Para organizar la comida sería interesante que cada un@ de nosotr@s llevemos algo preparado por nosotr@s mism@s: la idea es probar platos autóctonos y extranjeros. **¡TÚ también puedes traer tu especialidad!** Por lo tanto, esta es la siguiente cita:*

- **Día:** 13 de mayo de 2022 (viernes)
- **Hora:** 18:00
- **Lugar:** Ludoteca Abaraxka, Plaza Kontzejupe s/n

¡HAGAMOS LA RECEPCIÓN QUE NOS GUSTARÍA QUE NOS HICIERAN A LOS NUEVOS VECINOS-AS DEL PUEBLO!

2. 'Mitos y ciclicidad' taller: 13 de mayo

*El grupo Loregorri y la iniciativa Haziak han organizado el taller 'Mitoak eta Ziklizitatea' para educadores-as y padres-madres en particular. Hablarán de **temas relacionados con la menstruación**, aclarando inquietudes, rompiendo mitos y reflexionando sobre el tema. ¡Anímate, que el ambiente será agradable!*



- **Data:** maiatzaren 13a, ostirala
- **Ordua:** 17:00etan
- **Tokia:** udaletxeko pleno aretoa

- **Día:** 13 de mayo de 2022 (viernes)
- **Hora:** 17:00
- **Lugar:** salón de plenos del ayuntamiento

3. Kontzertu didaktikoa: maiatzak 7

Abaraxkak eta Soinueneak antolatuta, kontzertu didaktikoa izango da bihar larunbata Ergoienen.

- **XIROLARRUA:** JUAN MARI BELTRAN ETA FERNANDO JALON, familian ikasi eta aritzeko
- **Data:** bihar larunbata, maiatzak 7
- **Ordua:** 11:30ean
- **Tokia:** Soinuenea Herri Musikaren Txokoan

3. Concierto didáctico: 7 de mayo

Organizado por Abaraxka y Soinuenea, mañana sábado habrá un concierto didáctico en Ergoien.

- **Xirolarrua:** Juan MARI BELTRAN Y FERNANDO JALON, para aprender y practicar en familia
- **Fecha:** mañana sábado 7 de mayo
- **Hora:** 11:30 horas
- **Lugar:** Soinuenea Herri Musikaren Txokoa

4. Haur Literatura ekimen LGTBIQ+ eta feminista

Aurten lehenengo aldiz ekimen hau antolatu dute Oiartzunen. **Maiatzaren 14an, larunbata, liburu txokoak izango dira, txapa eta orripunttu tailerrak ere bai, musika lasaia...** Baita Kontzejupe Plazako eskaileren margoketa ere.

Informazio guztia atxikitako orrialdean duzue.

4. Literatura Infantil, iniciativa LGTBIQ+ y feminista

Este año han organizado por primera vez esta iniciativa en Oiartzun. **El sábado 14 de mayo habrá txokos de libros, talleres de chapas y marcapáginas, música relajante y pintado de las escaleras de la Plaza Kontzejupe. Toda la información la tenéis en la página adjunta.**

5. AR Redadeg: bidaia Britainiako "Korrikara"

Karaezekin Senidetza Taldeak eta AEK-k bidaia antolatu dute Britainiako AR Redadeg lasterketan parte hartzeko, **maiatzaren 25etik 29ra. Xehetasun guztiak atxikitako orrialdean dituzue.**

5. Viaje a AR Redadeg

Karaekin Senidetza Taldea y AEK han organizado un viaje para participar en la carrera bretona AR Redadeg, que tendrá lugar **del 25 al 29 de mayo. Todos los detalles en la página adjunta.**

